

ArteDrama

Euskal Laborategia

ADEL09



Aulestin (Bizkaia) / **Apirilaren 12tik 18ra**



Aurten ere, **Artedrama Euskal Laborategia (ADEL)**, arte eszenikoetan euskaraz lan egiten dugunontzako topagunea izango da; aktore, zuzendari, antzerkigile zein antzerkizale guztientzako urtero zabaltzen den gunea. Profesional zein ikasleentzako bideratuta dago aurtengo edizioa, beti ere Euskal Herriko arte eszenikoetan murgilduta gaudenon arteko eztabaidak eta elkartrukeak sustatzeko asmoarekin.

Aldi berean, ADEL 2009an parte hartzen duten profesionalek eskeiniko dituzten tailer irekiez aparte, Aulestiko herriak ere hainbat erakustaldi zein ekintza dramatiko jasoko ditu ADELeke partaideen eskutik, Aulesti Arte Astea-ren barruan.

Orain dela zenbait urte laborategi gisa jaiotako topagune honek badu oraindik zer hobetzerik. Aurreko edizioetan bezala, gure aurrekontu mugatuak ez digu uzten guk nahiko genituzkeen esperimendazio saio, erakusleihu zein artxibazio zentruak sortzen, hala ere, oztopoak oztopo, ADELeke badu zer eskeintzerik, lan apal baina sakon bati esker, euskal arte eszenikoen esparruan, bai profesionalei eta bai aditu zein zaleei. barruan aspaldi lanean dabiltzan ikerlari eta sortzaileak izango dira gurekin irakasle eta solaskide moduan.

Hauxek dira gurekin aste honetan egongo diren irakasleak:

ANDER LIPUS (F T I)

MIREN GAZTAÑAGA (F T I)

XIMUN FUCHS (LE PETIT THEATRE DE PAIN)

IGOR DE LA CUADRA

KABI STRUBELL (DUT)

XABI ERKIZIA

AINARA & URKO (DEJABU PANPIN LABORATEGIA)

MATRIKULA

Ikastaro trinkoaren salneurria **350 €** da. Prezio honetan ikastaroaz gain, eguneko otorduak eta lo egitekoa barne daude.

HIZKUNTZA

Ikastaro guztiak euskaraz izango dira.

IRAKASLEAK ADEL09

ANDER LIPUS

Markina (1971). Madrilen zazpi urtez lanean egon ondoren Bilbora itzuli eta beste artista batzuekin Mina espazioa sortu zuen. 1998an Antzerkiola Imaginarioa taldea sortu eta aktore eta zuzendari lanetan aritua., Beste zenbait antzerki taldekin ere egin du lan: Txalo, Hortzmuga, Sagarroi rock taldearekin; Hika Teatroat... Azken bost urtetan herriz-herriko antzerki-antropologia proiektua ere zuzendu du: "Ritos, gure azken lur zatia". Antzerki antropologian eta Mendebaldeko tradiziozko antzerkian aditua, batez ere Indiako kathakali antzerki-dantzak Kalamandalam Haridasan guruarekin ikasia.

XIMUN FUCHS

Maska, bufoia eta hitza: Bi egun horietan, proposatzen dizuet taula edo oholtza antzerkiaren inguruan lantto bat eramaitea. Iparraldeko idazle batzuen bitartez (Antton Luku, Mattin Hirigoien...) gure antzerki herrikoia (toberak zein maskaradak) zeharkatuz. Gorputza, hitza eta energia izango ditugu lagun eta gure imaginarioa aztergai. Gurea, norberarena. Gure antzerki herentzia erabiliko dugu antzerki garaikide euskalduna aurkitzeko. Ezer berririk, jolasteko gogo ikaragarria baizik.

Ximun FUCHS;1994-ean, Le Petit Theatre de Pain taldearen sortzaileetarik izandakoa. Talde horren izenean, hamar bat sorkuntza kolektibo eginik, Georges Bigot (Theatre du Soleil-en kidea) eta Cesar Brie (Teatro de los Andes-en kidea) zuzendariekin ere lan egin dut. Iparraldean, Antton Lukuren hiru obratan parte hartu dut, Hiru Puntu taldearen lehen urratsak. Baita Mattin Irigoienek tobera batean zirtzilaren kargua eman zidaten. Azken aldi honetan, Dario Fo-ren testu batzuetan oinarriturik, "Juglarea, puta eta eroa" muntatu dut Mariya Anevaren zuzendaritzapean. Zer erran, besterik ere izan da, baina antzerkigintzaz ari giren honetan, hauek izan dira gehien mamitu nautenak,"

IGOR DE LA CUADRA

Kurtsoa: Tailerrak antzezlearen gorputza eta akzio dramatikoak ditu oinarritzat. Nola sortzen dugun akzio dramatikoak akzio fisiko zehatz eta organikoen bitartez (presentzia eszenikoa, akzioa, pertsonaia edo estiloa). Kurtsoa Gorputz Mimoaren (Decroux teknika) aktorearen oinarri fisikoak ezagutu ta lantzea du helburu:

- a) teknika prespresibo ta espresiboen elkarlana adieraztea ariketa praktikoek bidez.
- b) Aktorearen hizkuntza eszeniko honen medio, aktorearen sorkuntza dramaturgikoa lantzea (bakarrean eta taldeka).

Igor de Quadra Londres -en International Corporeal Mime School en ikasi zuen (1996-2003) Steven Wasson eta Corinne Soum-erekin. Parte hartu zuen Londres-eko Theatre de L'Ange Fou ta Falsa Imago konpanietan. Ondoren Gary Stevens, Joao Fiadeiro ta Station House Operarekin ikasten jarraitu du. Igor antzerkilari (Methology, Ahora Pienso en Ti, Ikusi Makusi,...) ta pedagogo lanetan dabil gauregun: UPV/EHU Dantza Gelan, Kabia-n (Gaitzerdi Antzerki taldea) ta Kukutza Gaztetxea III an Antzerki Fisiko (euskeraz) tailerrarekin. Bilbaoarte beka artistikoa jaso du 2009 rako.

MIREN GAZTAÑAGA

Kurtsoa: Helburua, gorputza abiapuntu bezala hartu eta hainbat ibilbide eta presentzia esploratzea da. Gorputza bere mugetara eramatea, egiazkoa eta norberarena den mugimendu bat landu ahal izateko.

Bakoitzaren expresibidade eta ideiei daukaten balioa eman eta haietaz baliatuz. Bestalde, transformazioa izango da gaia eta kurtsoaren ardatz nagusia. Mugimenduaren eta presentziaren hainbat kualitate landuz: femeninoa eta maskulinoa, besteak beste.

Miren Gaztañaga : Orain dela hamar urte, Antzerkiola Imaginarioa izeneko zulo txo batetik begiratzen hasi eta barruraino jausi nintzen (baita jausten utzi ere). Harez geroztik, hainbat esperientzia bizi eta gero, gaur egun, antzerkia eta dantza, textua eta gorputzaren tarte horretan kokatzen dut nire burua. Bata eta bestearen arteko mugak zalantzan jarriaz. Norberaren erraiak eszena gainean taulartzeko hainbat modu desfizatzen helburuarekin, esploratzaile jantzia soinean.

DEJABU PANPIN LABORATEGIA

Kurtsoa: Egunerokoan inguratzen gaituzten objektuen gaitasun poetikoa, euren indar espresiboa, aurkitzea izango da gure lehen xedea. Txotxongiloek ez omen dute bihotzik, baina badute arima eta badituzte emoziaz; ez omen dute burmuinik, baina badituzte nahiak. Objektuei izaera partikular bat emateko oinarritzkoa izango zaigu haien formari, haien erritmoari, arnasari eta inguruarekin duten harremanari erreparatzea. Forma sinpleenetatik konposatuagoetara jauzi eginaz, izaki berri hauen drama ezagutzen saiatuko gara instante batez bizitza hartzearen kinka horretan jarriz. Txotxongiloak beti dakar harekin mundu bat. Eta gu, mundu horiek deskubritzen ahaleginduko gara.

Dejabu panpin laborategiko kideak (Urko eta Ainara) 1999. urtetik gabilta txotxongiloen munduan murgildurik. Kultur arteko harremanek interes berezia izan dute hasieratik taldearentzat eta hala zenbait bidaia burutu ditugu helburu horrekin. Oreretako Mikelazulo kultur elkarteko lagunekin batera Senegal, Ekuador, Bosnia eta Saharan izan gara. Bidaia horietan sortutako ikuskizunetan disciplina ezberdinetako artistekin lan egiteko aukera izan dugu- dantzariak, poetak, margolariak edo musikariak-. Gaur egun txotxongiloak eta aktoreak nahasten dituen lengoia baten bila dihardugu, batez ere mugimenduan eta groputz zein objetuen gaitasun poetikoan oinarrituta. Taldeak sortutako azken lana – Covek nije ptica. Gizona ez da txoria- bide horretan urrats bat da.

XABI STRUBELL

Kurtsoa: Ikastaroak inprobisazioa izango du oinarri, inprobisazioaren oinarriak, inprobisatzailearen arnasa eta gogoia. Noruntza doa inprobisazioa, nondik jo, nola sortzen dira ehundura desberdinak musikan oinarri musikal bereziak sortzeko. Ikasleekin elkar-elikatuaz, Xabiren ibilbidearen zenbait mugarri aztertuko ditugu, betiere ibilbide horrek dituen konstanteen azterketaren bidez eta musikariei euren ekarpenak egiteko aukera emanez.

Xabi Strubell hondarribiko musikaria dugu ibilbide luzea egin duena euskal musikan. 15 urtekin DUT taldean hasi zelarik, 15 urte daramatza kontzertuak eta diskoak egiten, DUT, ANARI eta ZURArekin nagusiki, baina baita bestelako proiektuetan. Musikari gisa estilo anitzak jorratu ditu, betiere ukitu pertsonala bilatuz. Horregatik, ez da arraroa Xabi aurkitzea bere dj proiektuarekin sesio bat prestatzen, bestaldetik bideo-sorkuntza bati musika jartzen ari zaion bitartean edota ZURAKo kontzertu baterako ensaioak egiten ari dituen bitartean. Hortaz, artista aurpegi-anitza da, polirritmikoa eta polifonikoa. Poliedrikoa azken finean.


XABI ERKIZIA

Berako (Nafarroa) musikaria; hainbat egitasmotan sartuta egon dena taldean, zein bakarka, zinemarako konposatzen, beti ere musikaren abanguardia esparruak ikutu nahian. Bere lana eta musika instalazioak munduko hamaika txokotan erakutsi ditu.

ANTOLATZAILEA: Artedrama

Laguntzaileak: Aulestiko Udala eta Aulestiko herria

615 77 95 11 info@artedrama.com



Artedrama Euskal Laborategia